



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OIONgo Udala  
Oyón-Oiongo Udala

Udako ludoteka zerbitzua familia- eta lan-bizitza uztartzeko

Oyón-Oiongo Udalak ludoteka zerbitzua abiaraziko du.  
Zerbitzua Imaginate (Frama Actividades Rioja SL) enpresak emango du.

Lehentasuna eman zaie osasun-segurtasuna bermatzeko neurriei, eta, kontratistarekin batera, protokolo bat egin da ludoteka martxan jartzeko.

Ludoteka Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat izango da, eta zerbitzua Ramiro de Maeztu ikastetxeko Haur Hezkuntzako geletan emango da.

Ludotekara sartzeko ordutegia 9:00etatik 9:30era izango da, eta, irteteko, 13:30etik 14:00etara.

Izen-ematea:

Ludoteka zerbitzua ekainaren 29an hasiko duten familiek izena eman beharko dute ekainaren 23aren eta 26aren arteko epean.

Uztailaren 6an hasiko diren familientzako izena emateko epea uztailaren 3ra (ostirala) arte luzatuko da, eta izen-emateak 941254173 eta 691537772 telefono-zenbakien bidez egin ahalko dira, 10:00etatik 12:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara.

Osasun-egoera aintzat hartuta:

- Familiek, izena emateko orriaz gain, haurra osasuntsu dagoela ziurtatzeko adierazpen bat ere bete beharko dute.
- 9 hurreko taldeak egingo dira.
- Ezin izango da ludoteka zerbitzua egun solteetan erabili (gutxieneko epea astebetekoa izango da).
- Zerbitzuaz gozatzeko, izena emanda egon beharko dira eta dagokien zenbatekoa ordainduta.

Prezioa: Astebete, 30 euro.  
Hilabete, 75 euro.

Ordainketa BIZUM bidez egin beharko da (691537772 zenbakian) edo honako banku-kontu honetan: 3035 0227 46 2270047642 (Laboral Kutxa). Bi kasuetan ADIERAZI beharko da haurraren izena.

Izena emateko orria, osasun-adierazpena eta bankuaren frogagiria honako helbide elektronikoko honetara bidali beharko dira: [marta@imagineframa.es](mailto:marta@imagineframa.es).

Honako hauek izango dute izena emateko lehentasuna:

- 1) Oyón-Oionen errolatutako familia-unitateak, guraso biek etxetik kanpo lan egiten badute.
- 2) Oyón-Oiongo ikastetxeetan matrikulatutako haurrak (Ramiro de Maeztu ikastetxea – San Bizente ikastola), guraso biek etxetik kanpo lan egiten badute.

Oyón-Oionen, 2020ko ekainaren 22an.  
Alkatea, Eduardo Terroba Cabezón.

Eduardo Terroba Cabezón.

